



Izenburua	Auzoko: Aniztasunean elkarbizitza euskaraz
Egilea	Maiden Elgoro
Data	2011/04/08

aurkibidea

aurkibidea	2
1. Aurrekariak.....	3
2. Zer da Auzoko?.....	3
3. Euskara ludikotasunean.....	5
4. Taldeak sortzen.....	6
5. Komunikazioa.....	8
6. Taldeetan zer egiten da?.....	9

1. Aurrekariak

Urte asko pasa dira Espainiar Estatutik lehen migrazio masiboa Euskal Herrira iritsi zenetik eta migrazio fluxuak gora beherak izan dituen arren, etengabeko fenomeno dugu migrazioarena. Azken urteotan fenomeno honek jasandako aldaketa nagusia jatorriarena da; migratzaileak Latin Amerikatik, Afrikatik, Asiatik, Europatik eta oraindik ere, Espainiar Estatutik datoz.

Beste hizkuntza batzuetako hiztunak dira guztiak.

Gure herrietako egoera soziolinguistikoa, batetik, momentu historiko/sozio-politiko zehatz batean iritsi ziren gaztelera hiztunak barne migratzaileak zirela sinistuta eta bestetik, euskaldunok gure hizkuntza hitz egiten ez zutenekiko hartutako jarrera batzuetan babesle, batzuetan gizalegetsu, batzuetan sumiso eta bestetan zanpatuak eraldatu zuten. Ondorioz, gaur egun, jada aspalditik hemen bizi edo eta hemen jaio direnak baina euskara ikasi ez duten erdaldun asko dago.

Erdaldun asko berriz, iritsi berriak dira eta bai egoera baina baita haien jarrera ere zeharo desberdinak dira. Gure hizkuntza ohiturak aldiz, lehenagokoak izaten jarraitzen dute.

Labur-labur kontatutako hausnarketa hau, sakon egin genuen Topagunean eta UEMAn eta herri euskaldunetara begira, hau da, herritarren %80 euskal hiztuna den herrietan, erdaldunentzako harrera planik ez zegoela kezkatuta, hizkuntzaren ikuspuntutik harrera egituratzea adostu genuen.

Urtebete pasa planaren diseinua egiten eman genuen eta bukatu bezain pronto, paperean jasotakoa frogatu beharrak, proiektu pilotu batzuk martxan jartzera eraman gintuen. Hasiera batean eremu euskaldunetan hasi ginen arren, eremu ez euskaldunetan, non euskaraz bizi nahi duen komunitate bat badagoen, egitasmoa frogatu nahi izan dugu. Gaur egun, Berritxu, Bergara, Orio, Agurain eta Donostiako Antigua auzoan gabiltza.

AUZOKO teoria eta filosofia izatetik, praktikagarria izatera eraman dugu eta poliki goazen arren, emaitzak aberatsak eta pozgarriak dira.

2. Zer da Auzoko?

Gure herrietako errealitate kulturala eta eleanitza ezagutu eta berdintasunean (posible den heinean) oinarritutako elkarbizitza eraikitzeke eta guztion arteko komunikazioa euskaraz jorratzeko egitasmo xume, horizontal eta parte-hartzailea dugu.

Egitasmoaren diseinua esperientzia pertsonaletatik abiatuz, esperientzia hauekin bat egiten duten teoria eta metodologiak aztertuz eta egingarriak direla frogatuz sortu dugu.

2.1 Zergaitik AUZOKO bezalako egitasmo bat?

- 1- Euskara kohesio/ komunikazio hizkuntza izan dadin nahi dugulako.
- 2- Herri euskaldunetan euskaraz gain beste hizkuntza asko egiten dira, eta horiek aintzat hartzeak euskarari onura ekarriko diolakoan gaudelako.
- 3- Harreman zuzenaren bidea, hurbiltasunaren bidea delako beste hizkuntzetako hiztun helduak euskarara hurbiltzeko erarik onena.
- 4- Euskarak aliatuak behar dituelako eta beste hizkuntzen hiztunak aliatu onak izan ahal dira euren hizkuntza onartzen bazaie. Elebitasunean galtzeko guztiak ditu euskarak, hizkuntz aniztasun egoeran berriz ez.¹
- 5- Hau ez da “etorri berriei” ezartzeko zama berri bat², ezta kulturartekotasuna, integrazioa... lantzeko egitasmoa, hizkuntza-egitasmoa da. Euskara erdigunean jarriz elkar ezagutzeko eta elkarbizitza eraikitzeke aukera daukagu.

2.2 AUZOKOk hiru helburu nagusi ditu:

- 1- Euskaratik urrun bizi direnak euskarara hurbildu nahi ditugu. Euskara eskura jarri nahi diegu, hizkuntza kalean, jende arten ikasteko aukerak sortuz, hori baita hizkuntza bat norbereganzeko modurik naturalena.

1

“Euskadik edo Kataluinak bezala menpeko hizkuntza -mehatxatutako hizkuntzat jo dezakeguna- daukaten erkidegoetan,, Migrazioek dakarten hizkuntza aniztasuna egoera aldatzeko giltza izan daiteke. Badirudi orain gizarte elebidunak osatzeko joera dugula, eta horiek hilgarriak dira menpeko hizkuntzarentzat. Oraingo aniztasunari etekina ateratzen badiogu, berriz, gizarte eleanitzak sortzeko joera sor dezakegu, eta horietan, agidanez, hobeto gordetzen da hizkuntza aniztasuna.” Junyent, Carme. “Inmigrazioak mesede egiten die katalana edo euskara bezalako hizkuntzei”, Argia, 2005eko Otsailaren 20a - 1980. alea.

2

“Etorkinak bizitza duinago baten bila etorri dira, eta ezin diegu gure zalaparta soziolinguistikoak uler ditzaten eskatu, baldin eta haiekin harremanetan sartzen ez bagara eta gure arazo berri ematen ez badiegu behintzat. Baina argi dago ez dutela ezer ere ulertuko hasiera batetik aheriotzat, geure nortasunaren aztoratzailatzat edo zapaltzailatzat jotzen baditugu. Eta hori azpimarratu nahi dut, oso erraza delako gizarte egoera ahulagoan bizi dena zapaltzailatzat edo oztopotzat jotzea.” Unzurrunzaga, Agustin. “Euskara eta Inmigrazioa”, Bat Soziolinguistika aldizkaria 52. zk. 2.004ko iraila.

- 2- Herritarrak gure herrietako hizkuntz aniztasunaz jabetzea: Gure herrietan gaur egun danetariko doinuak entzun ditzazkegu. 20, 30, 40 hizkuntzen hiztunok konpartitzen ditugu kale, eskola, denda, kiroldegi eta abarrak.

- 3- Hizkuntza desberdinetako herritarrak harremanetan jarri nahi ditugu, norberarena aintzat hartuta, euskara komunikazio eta kohesio hizkuntza izan dadin eta etorkizunera begira bide horretan sakondu nahi dela oinarritzat hartuta.

3. Euskara ludikotasunean

Hizkuntza bat ikastea, eskolan egin genuena egitea da eta prozesu jakituna (kontzientea) da. Gutariko gehienok ingelesa edo frantsesa ikasi genuen eskolan baina zenbat gara gai hizkuntza hortan komunikatzeko?

Hizkuntzaz jabetzea berriz, prozesu subkontzientea da. Gertatzen ari denean ez gara jabetzen gertatzen ari denik. Jasotzen dugun hori garunaren subkontzientean gordetzen da eta ikerketen arabera bai haurrek eta baita nagusiek ere subkontzienteki hizkuntza jasotzeko gaitasuna daukagu.

“Hizkuntzaz jabetzeak ez du arau gramatikal kontzienteen erabilera eskatzen ezta errepikapen ariketa aspergarriak egiterik ere.”

“Hizkuntzaz jabetzeak xede hizkuntzarekin interakzio esanguratsua eskatzen du -komunikazio naturala- non hitzuna ez den enuntziatuaren formaz arduratzen, eman nahi duen mezuaren adierazpen eta ulermenean baizik.”

“Beraz, metodologiarik onenak antsietate baxuko egoeretan “input ulergarriak” hornitzen dituztenak dira, ikasleak edo jasotzaileak benetan entzun nahi dituenak eskuan jartzen dizkien metodologiak. Metodologia honek ez du berehalako erreprodukzioa derrigortzen, ikaslea gertu dagoenean erreproduzitzera eramaten baizik. Input komunikagarri eta ulergarriak hobekuntza dakarrela kontutan hartuz eta ez ekoizpena derrigortu eta zuzenduz.”

“Bizitza errealean, laguntzeko prest dauden jatorrizko hiztun ulerkerekin elkarrizketak oso dira lagungarriak jasotzailearendako” **Stephen Krashen**

AUZOKOn ez dugu inor euskalduntzeko asmorik, euskarara hurbiltzeko baizik eta jasotzen den horrek komunikatzeko balio izatea bilatzen dugu. Ez dugu euskara

zuzena bilatzen eta ulertzen den heinean ontzat ematen dugu. Euskaraz komunikatu nahi dugu, besterik ez!

Euskararekiko berria denak lehenik eta behin, entzuteko premia dauka, hori baita hizkuntza bat “naturaltasunean” ikasteko lehen urratsa: entzumena lantzea. Are gehiago, esan ahalko genuke euskararekiko berria denak euskaraz entzuteko eskubidea ere baduela, baldin eta euskara berea egingo badu. Bestela ezingo du eta berea egin. Entzun, errepikatu eta berriz ere entzun. Patxadaz eta, Krashenek dioen bezala, giro lasaian, lagun arteko giroan, stress free!

BALDINTZA EGURALDI ONA NI BIHAR LAGUNEKIN MENDIRA JOAN BAZKARI.

4. Taldeak sortzen

Auzoko proiektu pilotoak martxan jarritako herri bakoitzean dinamizatzaile bat dabil etengabe lanean eta berari dagokio alde batetik, taldeak sortu eta dinamizatzea eta bestetik, herritarrei herriko hizkuntza aniztasunaren berri ematea.

Dinamizatzaileek Topaguneatik jasotzen dute bai formazioa, bai aholkularitza eta baita talde saioetan egiteko dinamikatarako ideiak eta materiala ere. Hilean behin guztiok elkartzen gara bakoitzaren esperientzien inguruko elkartrukea gauzatzeko.

Auzokoko taldeak sarrera libreko eremuak dira eta sailkapen bakarra euskaraz hitz egitea edo ez egitea da. AUZOKO, AUZOTAR eta AUZOKIDEEK osotzen dute. AUZOTARRAK euskaraz bizi diren herritarrak dira eta AUZOKIDEEK euskarara hurbildu nahi dituzten herritarrak. Beste sailkapen guztiak (bertakoa, kanpoko, etorkina, euskalduna...) ez zaizkigu interesatzen, euskararekiko hurbiltasun / urruntasunaz besterik ez gara ari.

Auzokoren funtzionamendu eta printzipioetan sailkapen faktore bakarra mugikorra da, aldakorra eta hortaz dinamikoa. Ez dago ezer finkorik, denborak (euskararen ezagutzaren bidez) mugi baitezake posizioa. Bi perfilak beharrezkoak dira AUZOKO taldeak osatzeko, bata edo bestearen ausentziak bertan behera utziko bailuke egitasmoa.

Egitasmoa bi ildotan banatu dugu, elkar elikatzen badira ere. Alde batetik, komunikazioa lantzen ari gara, herritarrei herriko hizkuntza aniztasuna eta Auzoko zer den azaltzeko. Bestetik, Auzoko lagun taldeak martxan jarri ditugu, *Auzotarrez* eta *Auzokideez* osatuak, herritarrak berdintasun egoera batean eta ludikotasunean euskaraz komunikatu daitezzen, aniztasuna eta elkartrukea jorratuz.

Dinamizatzaileak beraz, “kale lanean” aritzen dira Auzotar eta auzokide posibleak identifikatu, AUZOKOren berri eman eta taldeetan parte hartzeko animatzen.

Etorri berrientzat soilik ez bada ere, euskararen eremuetara heldutako etorri berriek euskararanzko bidea egin dezaten euren jatorrizko hizkuntza onartua eta errespetatua sentitzea onuragarria izango da. Eta gainera, hizkuntza - aniztasuna hori euskararen, hizkuntza gutxituaren, aliatu gisa ulerturik, aldeko faktore bihurtzen saiatuko gara.

Auzokideengana beraien hizkuntzan (ondoren euskaraz) agurtuz iristen saiatzen gara. Aurrez esan bezala, bakoitzaren hizkuntzari guretzako gureak daukan garrantzia/errespetua emanaz hartuko dute gurea aintzat eta errespetuz eta horretarako 34 hizkuntzatan kaleratu ditugu oinarrizko poltsikoko hiztegitxoak.

Hiztegitxo hauen egileak hiztunak berak dira, hiztunak identifikatu heinean sortu dugu bakoitza eta egilearen izena daramate. Sinbolikoa den arren (baina aldi berean errealia ere bai) beraiek herri hontan (euskararen alde) zerbait egiten ari direnaren sententzia daukate.

Beraz, dinamizatzailerak hiztegitz armatu eta botatzen dira kalera. Auzokideen erreakzioak benetan ikusgarriak dira, beraiengana hurbildu eta Aymaraz, Yahenkez edo Punjabieraz egun ona ematen diegunean.

Auzotarrekin egin beharreko lana berriz desberdina da. Ausartegiak izateko arriskuan sartu gabe, esan liteke, herri euskaldunetako herritarrok euskarari normaltasunez eusten badiogu, herritar berriak (eta berriak izan gabe, euskaraz ez dakitenak) ez duela duda izpirik izango eta euskararanzko bidea egingo duela. Arinago edo mantsoago, baina egin egingo du. Ateak irekitzen bazaizkio egingo du.

Auzotarrak hontaz jabetu behar ditugu. Gure hizkuntza ohiturak aldatu behar ditugula ohartarazi behar ditugu eta gure lehen hitza euskaraz bada, erantzuna horrela izateko aukera guk sortzen dugula konturatu. Egitasmo honek ate horiek irekitzen lagundu eta bide hori arindu, erraztu besterik ez du egin nahi. Herrietan badira euskaltegiak, herrietan badira heldu berriak heldu berri izateari utzi bezain laister euskalduntzen direnak, herrietan badira naturaltasunez, berez, euskaranzko interesa, beharra, jakinmina duten beste hizkuntzadun herritarrak. Kalera irten eta kalea euskaraz bizi dela ohartzea bat dira askorentzako. Herritartzeko bidean euskarak sekulako saltoa ematea suposatuko diela badakite, herri bizitzan parte hartzeko aukerak euskararen bidez erabat zabalduko zaizkiela badakite, euskaraz bizi direnen eremuetan, jardueretan, elkarteetan... gure artean egiten dugun bezala, erdaldunari ere euskaraz egingo badiogu.

Gure auzokide berri asko, orain artekoak ez bezala, eleanitzak dira. Bigarren eta hirugarren hizkuntza bereganatuak dituzte haien jatorrietako errealitatea eleanitza baita. Beraz hizkuntza berri bat bereganatzearen prozesua ez dute ezezagun eta beste hizkuntza berri bat bereganatzeko giltzak badituzte. Beraz, zergatik emango diegu gaztelera, guk euskaraz bizi nahi badugu? Eman diezaiegun Euskara! Jarri

dezagun guk bizi nahi dugun hizkuntza guztien esku, eman diezaiogun guk bezala, euskaraz bizitzeko aukera, honela nahi duenari.

5. Komunikazioa

Komunikazioari dagokionez beraz, kalean banan banakoa egiteaz gain, behin taldeak martxan jarri eta herri osoari begira aurkezpen ofizial bat egin ohi dugu, herritar guztiak gonbidatu eta egitasmoaren berri emateko.

5.1 Aurkezpen ofiziala

Aurkezpen ofizialaren helburua, zertan gabiltzan eta bagabiltzala jakin arazteaz gain, AUZOKOn auzotar aktibo zein auzotar pasibo izatearen aukerak azaltzea da. Auzotar aktiboak taldeetan parte hartzen duten euskaldunak dira eta hauek oinarrizko prestakuntza bat jasotzen dute taldeetan hasi baino lehen. Auzotar pasibo izatearen aukera eta garrantziaz ere informatzen ditugu: herrian, bakoitza bere eremuan, eguneroko bizitzan izan gaitezkeela auzotar hau da, euskara emale eta honetarako pistak ematen saiatzen gara.

Giltza herritarren erabileran dagoela komunikatzen saiatzen gara. Hots, herritarrek euskara erabili eta herri bizitzako komunikazio-tresna izateari eusten dioten heinean, bertaratutako edonork (eta bertan bizi eta oraindik euskaraz ez dakien edonork) euskara ikasi eta erabiltzearen arrazoi instrumentalak askoz argiago ikusiko ditu. Bestelako eszenarioa (herritarren artean euskararen bizitasunak gero eta osasun eskasagoa izatea) dugu inork euskara ez ikasteko ezta erabiltzeko bermerik onena, hots, oso zaila izango da inork kalean beharrezko sentitzen ez duen hizkuntza ikasi eta erabiltzea. Nahibeste mezu zuzendu ahal zaizkie euskaldundu ez direnei, nahi beste kanpaina bideratu, baina kalean euskara ez bada bizitzaren erdigune, askoz bide nekezagoa izango dugu. Horregatik prozesuaren lehen urratsak herritarrekin prestaketa lana egin beharraz ari dira, eta horregatik herritarren parte – hartzea funtsezkoa izango da urrats guztietan bai aktiboki baina baita pasiboki ere.

5.2 MOSKEO KANPAINA

Lanean ari garen herri bakoitzean, hizkuntza aniztasunaren inguruko diagnosi bat egin ondoren, herri bakoitzean gutxi gora behera zenbat hizkuntza hitz egiten diren jakitera iristen gara. Moskeo kanpaina deitu diogun komunikazio kanpaina honen bitartez, herrian hitz egiten diren hizkuntzen inguruko informazioa herritarrei iritsi arazteko herriak apaindu, informazioa eman, kendu, galderak bota eta herriko puntu esanguratsuetan erantzunak jasotzeko kutxak jarritzen ditugu.

6. Taldeetan zer egiten da?

Egitasmoaren baitan, Auzoko taldeak elkartzeko maiztasuna bi, hiru astean behin proposatzen dugu baina hori, taldeak martxan jarri eta haien esku gelditzen da zenbatero elkartuko diren erabakitzea. Herri batzuetan astean bi aldiz ere elkartzen gara.

Taldeetan jolastu egiten dugu. Guk sortutako materialak erabiliz eta aldiko helburu oso xumeak jarriz eta errepikapena oinarri, ongi pasatzen saiatzen gara: jolasaren bitartez, sukaldaritaza saioak eginez, txalaparta joaz, dantzatuz, zein elkarrekin baba jana eginez. Euskaraz elkar ezagutzen eta erlazioak euskaraz sortzen aritzen gara.